- 2.- Udalaren aktuazioak komunikazioetan, diligentzietan, txostenetan eta prozedura bakoitzeko araudi espezifikoan ezarritako beste agirietan dokumentatuko dira.
- 3.- Prozedura tributarioei bukaera emango die ebazpenak, atzera egiteak, eskabideak oinarritzat daukan eskubideari uko egiteak, geroago sortutako kausengatik jarraitzea materialki ezinezkoa gertatzeak, iraungitzeak, errekerimendu baten xede izan den obligazioa konplitzeak edo ordenamendu tributarioan aurreikusitako beste edozein kausak.

13. Artikulua.- Likidazio tributarioak.

- 1.- Likidazio tributarioa egintza ebazle bat da, zeinen bidez egiten baititu udaleko zerbitzu eskudunak behar diren kuantifikazioko operazioak eta zehazten baitu zor tributarioaren zenbatekoa edo, kasua hala denean, araudi tributarioaren arabera itzultzeko edo konpentsatzeko ateratzen den zenbatekoa.
- 2.- Udala ez dago obligatua likidazioak doitzera obligaziodun tributarioek autoliquidazioetan, deklarazioetan, komunikazioetan, eskabideetan edo beste edozein dokumentutan kontsignatutako datuetara.
- 3.- Likidazio tributarioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira. Behin betikoak kontsideratuko dira:
 - a) Inspekzioko prozedura batean praktikatua, obligazio tributarioaren elementu guztiak egiaztatu eta gero.

TÍTULO II. - PROCEDIMIENTOS TRIBUTARIOS

TS SECCIÓN 1ª- FASES DE LOS PROCEDIMIENTOS TRIBUTARIOS

ART **Artículo 12.- Iniciación, desarrollo y terminación de los procedimiento tributarios.**

1. - Las actuaciones y procedimiento tributarios podrán iniciarse de oficio o a instancia del obligado tributario mediante autoliquidación, declaración, comunicación, solicitud o cualquier otro medio previsto en la normativa tributaria.
2. - Las actuaciones municipales se documentarán en comunicaciones, diligencias, informes y otros documentos previstos en la normativa específica de cada procedimiento.
3. - Pondrá fin a los procedimientos tributarios la resolución, el desistimiento, la renuncia al derecho en que se fundamente la solicitud, la imposibilidad material de continuarlos por causas sobrevenidas, la caducidad, el cumplimiento de la obligación que hubiera sido objeto de requerimiento, o cualquier otra causa prevista en el ordenamiento tributario.

ART **Artículo 13.- Liquidaciones Tributarias.**

1. - La liquidación tributaria es el acto resolutorio mediante el cual el servicio municipal competente realiza las operaciones de cuantificación necesarias y determina el importe de la deuda tributaria o de la cantidad que, en su caso, resulte a devolver o a compensar de acuerdo con la normativa tributaria.
2. - El Ayuntamiento no está obligado a ajustar las liquidaciones a los datos consignados por los obligados tributarios en las autoliquidaciones, declaraciones, comunicaciones, solicitudes o cualquier otro documento.
3. - Las Liquidaciones tributarias serán provisionales o definitivas. Tendrán la consideración de definitivas:
 - a) Las practicadas en un procedimiento de inspección previa comprobación de la totalidad de los elementos de la obligación tributaria.

b) Araudi tributarioak izaera hori ematen dien beste guztiak.

Gainerako kasuetan, likidazio tributarioek behin-behinekoren izaera izango dute.

4.- Likidazio tributarioak onesteko eskumena alkateari dagokio.

14. Artikulua.- Ebazteko obligazioak, motibazioa eta epea.

1.- Udala obligatua dago prozedura tributarioetan planteatzen diren kuestio guztiak espresuki ebaztera, bai halaber ebazpen espresu hori notifikatzera, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Obligatiodun tributarioak bakarrik jakinarazi beharrekoak diren eskubideak egikaritzeari buruzko prozeduretan.

b) Iraungipena, prozedurako xedearen geroztik gertatutako galera, edo interesatuek uko egitea edo atzera egitea gertatzen denean.

2.- Interesatuak espresuki eskatzen duenean iraungipena, prozedurako xedearen geroztiko galera, ukoa edo abandonua deklara dadila, ebatzi egin beharko da eskaerari buruz.

3.- Ebazpena jakinarazi behar den gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, non eta aplikatzekoak diren arauak bestelako epe bat ezartzen ez duten.

Epea honela kontatuko da:

a) Ofizioz abiatutako prozeduretan, hasteko erabakia jakinarazten den datatik.

b) Interesatuaren eskariz abiatutako prozeduretan, dokumentuak tramitatuazateko organo eskudunaren erregistroan sarrera izan duen egunetik.

Atal honetan xedatutakotik salbuetsia geratzen da premiatzeko prozedura, zeinen aktuzioak luzatu ahalko baitira kobratzeko eskubidea preskribitzen den epera arte.

b) Las demás a las que la normativa tributaria otorgue tal carácter.

En los demás casos las liquidaciones tributarias tendrán el carácter de provisionales.

4. - La competencia para aprobar las liquidaciones tributarias corresponde al Alcalde.

ARTÍCULO 14.- Obligaciones de resolver, motivación y plazo.

1. - El Ayuntamiento está obligado a resolver expresamente todas las cuestiones que se planteen en los procedimientos tributarios, así como a notificar dicha resolución expresa, excepto en los casos siguientes:

a) En los procedimientos relativos al ejercicio de derechos que sólo deban ser objeto de comunicación por el obligado tributario

b) Cuando se produzca la caducidad, la pérdida sobrevenida del objeto del procedimiento, la renuncia o el desistimiento de los interesados.

2. - Cuando el interesado solicite expresamente que se declare la caducidad, la pérdida sobrevenida del objeto del procedimiento, la renuncia o el desistimiento, se deberá resolver sobre la petición.

3. - El plazo máximo en que debe notificarse la resolución será de 6 meses, salvo que la normativa aplicable fije un plazo distinto.

El plazo se contará:

a) En los procedimientos iniciados de oficio, desde la fecha de notificación del acuerdo de inicio.

b) En los procedimientos iniciados a instancia del interesado, desde la fecha en que el documento haya tenido entrada en el registro del órgano competente para su tramitación.

Queda excluido de lo dispuesto en este apartado el procedimiento de apremio, cuyas actuaciones podrán extenderse hasta el plazo de prescripción del derecho de cobro.

4.- Aurreko ataleko obligazioa konplintzat jotzeko, aski izango da ebazpenaren testu osoa daukan notifikazioa helarazteko saio bat egin dela akreditatzea.

Ebazpeneko epearen konputuan ez dira sartuko etenaldi justifikatuak eta udaleko administrazioari leporatu ezin zaion kausa batengatik prozeduran gertatutako atzerapenak.

5.- Zerbitzu eskudunek beharrezko neurriak hartuko dituzte egintza administratiboak motibatu beharra eta aurkeztutako errekurtsoak ordenantza honetan ezarritako epean ebatzi beharra konplitzeko.

Baldin zirkunstantzia jakin batzuetan zerbitziburuek kontsideratzen badute ezin dutela bete legezko obligazioa, alkateari emango diote horren berri, irtenbide egokienak bilatze aldera.

6.- Prozeduraren bukaera konbentzionala Udalbatzarrak baimendu beharko du.

15. Artikulua.- Espedienteen tramitazioa. Atzera egitea eta iraungitzea.

1.- Alde baten eskariz hasitako prozeduretan, baldin prozedura bat hasteko eskabideek ez badituzte betetzen indarrean dauden arauak beharretsitako baldintza guztiak, 10 eguneko epean anomaliak konpon ditzan eskatuko zaio interesatuari, adieraziz ezen, horrela egin ezean, bere eskaeran atzera egintzat joko dutela.

2.- Administrazioak kontsideratzen duenean herritarrek tramite jakin batzuk bete behar dituztela - prozedura jarraitzea eragozten ez dutenak-, horren berri emango die interesatuei, 10 eguneko epea emanaz tramiteak konplitzeko.

3.- Aurreko puntuan aipatutako epe horretan tramitea konplintzen ez duten herritarrei galdua deklaratu zaie dagokien tramiterako eskubidea. Hala eta guztiz ere, interesatuaren aktuazioa onartuko da baldin eta ebazpen administratiboa jakinarazten zaion egunaren barruan edo lehenago gertatzen bada.

4. - Para entender cumplida la obligación del apartado anterior será suficiente acreditar que se ha realizado un intento de notificación que contenga el texto íntegro de la resolución.

Los períodos de interrupción justificada y las dilaciones en el procedimiento por causa no imputable a la Administración municipal no se incluirán en el cómputo del plazo de resolución.

5. - Los servicios competentes adoptarán las medidas necesarias para cumplir los deberes de motivar los actos administrativos y resolver los recursos presentados en el plazo fijado en esta Ordenanza.

Sí en determinadas circunstancias los jefes de los servicios consideran que no pueden cumplir la obligación legal, lo pondrán en conocimiento de la Alcaldía a fin de buscar las soluciones más adecuadas.

6. - La terminación convencional del procedimiento deberá ser autorizada por el Pleno.

ARTÍCULO 15.- Tramitación de expedientes. Desistimiento y caducidad.

1. - En los procedimientos iniciados a instancia de parte, si las solicitudes de iniciación de un procedimiento no reúnen todos los requisitos exigidos por la normativa vigente, se requerirá al interesado para que en un plazo de 10 días subsane las anomalías, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición.

2. - Cuando la Administración considere que los ciudadanos deben cumplimentar determinados trámites -que no impiden continuar el procedimiento-, lo pondrá en conocimiento de los interesados, concediéndoles un plazo de 10 días para cumplimentarlos.

3. - A los ciudadanos que no cumplimenten el trámite en el plazo citado en el apartado anterior se les declarará decaídos en su derecho al trámite correspondiente. No obstante, se admitirá la actuación del interesado si se produjera antes o dentro del día en que se notifique la resolución administrativa.



4.- Interesatuaren eskariz abiatutako prozeduretan, ezinbesteko tramiteak ez betetzeak prozedura geldiarazten duenean berari lepora dakioken kausagatik, administrazioak ohartaraziko dio ezen, 3 hilabete igarotakoan, prozeduraren iraungitzea gertatuko dela.

5.- Gerta daiteke prozeduraren iraungipena aplikaziozkoa ez izatea baldin eta sortutako eztabaidak interes orokorra afektatzen badu edo substantziaztea komeni bada argitze aldera.

6.- Ofizios hasitako prozeduretan, efektu kaltegarriak edo kargazkoak sorrarazteko gauza badira, aurreko artikuluko 3. atalean finkaturiko epe maximoaren mugaeguna ebazpen espresua jakinarazi gabe gainditzeak berekin ekarriko du prozeduraren iraungipena.

7.- Iraungipena gertatutakoan, ofizios edo interesatuaren eskariz deklaratu da iraungipena, eta aktuazioak artxibatzeko aginduko da.

Iraungipen horrek ez ditu, berez eta bakarrik, administrazio tributarioaren eskubideak preskribiaraziko, baina prozedura iraungietan egindako aktuazioek ez dute etengo preskripzioko epea.

Prozedura iraungi baten ibilbidean egiten diren aktuazioek, bai eta prozedura horretan eskuraturiko dokumentuek eta beste elementu frogagarriek ere, kontserbatu egingo dute beren baliozkotasuna eta efikazia, frogantzaren ondorioetarako, beste prozedura batzuetan, hala hasitakoetan nola gerora obligaziodun tributario berari edo beste bati buruz has daitezkeenetan.

16. Artikulua.- Isiltasun administratiboaren efektuak.

1.- Interesatuaren eskariz hasitako prozeduretan, horiek ebazteko finkaturiko epe maximoa erabaki espresua eman eta jakinarazi gabe igaro bada, eskabidea isiltasun administratiboagatik baietsizat edo ezetsizat jotzera legitimatzen du interesatua, bietatik zer dagokion, eta administrazioak eman behar duen ebazpena baldintzatu gabe.

4. - En los procedimientos iniciados a solicitud del interesado, cuando la falta de cumplimiento de trámites indispensables produzca su paralización por causa imputable al mismo, la Administración le advertirá que, transcurridos 3 meses, se producirá la caducidad del procedimiento.

5. - Podrá no ser aplicable la caducidad del procedimiento cuando la cuestión suscitada afecte al interés general o fuere conveniente sustanciarla para su esclarecimiento.

6. - En los procedimientos iniciados de oficio, susceptibles de producir efectos desfavorables o de gravamen, el vencimiento del plazo máximo fijado en el apartado 3 del artículo anterior sin que se haya notificado resolución expresa, producirá la caducidad del procedimiento.

7. - Producida la caducidad, ésta será declarada de oficio ó a instancia del interesado, ordenándose el archivo de las actuaciones.

Dicha caducidad no producirá, por sí sola, la prescripción de los derechos de la Administración municipal, pero las actuaciones realizadas en los procedimientos caducados no interrumpirán el plazo de prescripción.

Las actuaciones realizadas en el curso de un procedimiento caducado, así como los documentos y otros elementos de prueba obtenidos en dicho procedimiento, conservarán su validez y eficacia a efectos probatorios en otros procedimientos iniciados o que puedan iniciarse con posterioridad en relación con el mismo u otro obligado tributario.

ARTÍCULO 16.- Efectos del silencio administrativo.

1. - En los procedimientos iniciados a solicitud del interesado, el vencimiento del plazo máximo fijado para su resolución sin haberse dictado y notificado acuerdo expreso, legitima al interesado para entender estimada o desestimada la solicitud por silencio administrativo, según proceda y sin perjuicio de la resolución que la Administración debe dictar.

2.- Epe horren barruan ebazpenik gertatu ez bada, eskabidea ezetsizat joko da honako kasu hauetan:

- a) Errekurtso kontentzioso-administratiboaren aurretiazko berraztertzea ebaztea, edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa, zuzenbide publikoko diru-sarrera lokalen kudeaketaren alorrean agindutako egintzen aurka.
- b) Tributu lokaletan onura fiskalak akordatzeko prozedurak.
- c) Puntu honetako a) apartatuan ezarritakoaren desberdinak izanik jar daitezkeen beste errekurtsu administratiboen ebazpena.
- d) Zuzenbide publikoko dena delako sarrerak kudeatzeko edota kobratzeko prozedura etetea, behar adinako bermea aportatzen ez denean.
- e) Legez ezarritako beste kasu batzuk.

3.- Sarrera bidegabean itzulera ere ezetsizat joko da 3 hilabeteko epean, betiere aurretik anulatua izan ez bada sarrera motibatua zuten likidazioa.

4.- Interesatuek formulariko eskabideak baietsizat joko dira aplikatzekoak diren arauetan ezarritako kasuetan.

2. ATALA. ARAU-TRIBUTUAK KUDEATZEKO PROZEDURAK

17. Artikulua.- Itzultzeko prozedura.

1.- Itzultzeko prozedura agiri hauetakoren bat aurkeztuz abiaraz daiteke:

- a) Kopuru bat itzultzera ematen duen autoliquidazio bat.
- b) Itzultzeko eskabide bat.
- c) Datuen komunikazio bat.

2.- a) puntutik ateratzen diren itzulerak egiteko epea 6 hilabetekoa da, autoliquidazioa aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

2. - Cuando no haya recaído resolución dentro de plazo, se entenderá desestimada la solicitud en los siguientes supuestos.

- a) Resolución del recurso de reposición previo al contencioso-administrativo, o la reclamación económico-administrativa, frente a los actos dictados en materia de gestión de ingresos de derecho público locales.
- b) Procedimientos para la concesión de beneficios fiscales en los tributos locales.
- c) Resolución de otros recursos administrativos que pudieran ponerse diferentes del establecido en el apartado a) de este punto, que pudieran interponerse.

d) Suspensión del procedimiento de gestión y/o recaudación de los ingresos de derecho público de que se trate, cuando no se aporte garantía suficiente.

e) Otros supuestos previstos legalmente.

3. - También se entenderá desestimada la devolución de ingresos indebidos en el plazo de 3 meses siempre que con anterioridad no haya sido anulada la liquidación que motivó el ingreso.

4. - Se entenderán estimadas las solicitudes formuladas por los interesados en los casos previstos en la normativa de aplicación.

^{TS} **SECCIÓN 2ª - PROCEDIMIENTOS DE GESTION TRIBUTARIA**

^{ART} **Artículo 17.- Procedimiento de devolución.**

1. - El procedimiento de devolución se puede iniciar mediante la presentación de:

- a) Una autoliquidación de la que resulte cantidad a devolver.
- b) Una solicitud de devolución.
- c) Una comunicación de datos.

2. - El plazo para efectuar las devoluciones resultantes del apartado a) es de 6 meses contados desde la finalización del plazo previsto para la presentación de la autoliquidación.

Baldin eta epez kanpo aurkezten badira zenbateko bat itzultza ematen duten autoliquidazioak, garaiz kanpoko autoliquidazioa aurkezten den egunetik aurrera kontatuko da itzultzeko epea.

6 hilabeteko epea igaro bada baina itzulera pagatzeko agindua eman ez bada administrazio tributarioari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, hark ordainduko du berandutzako interesa, obligaziodunak eskatu beharrik gabe. Efektu horietarako, berandutzako interesa epe hori bukatzen denetik hasi eta itzulera pagatzeko agintzen den artean sortuko da.

3.- Goiko 1.b) eta 1.c) puntuetako medioen bidez abiatutako prozeduretatik ateratzen diren itzulerak 6 hilabeteko epean ebatziko dira, eskabidea aurkezten den egunetik edo datuen komunikazioa aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita.

Kasu horietan, itzulerarekin batera, berandutzako interesa pagatuko da, bidegabeko sarrera egin zen egunetik hasi eta itzulera pagatzeko agintzen den egunera bitartean sortua.

Interesatuari lepora dakioken arrazoiagatik prozeduran gertaturiko atzerapenak ez dira kontuan hartuko berandutzako periodoa konputatzeko.

18. Artikulua.- Deklarazio bidez abiatutako prozedura.

1.- Tributuaren araudiak horrela ezartzen duenean, obligaziodunak deklarazio bat aurkeztu beharko du, zeinetan zergapeko egitatea burutu izana adieraziko baitu eta beharrezko datuak jakinaraziko baititu, arren eta administrazioak obligazio tributarioa kuantifika dezan, behin-behineko likidazio bat praktikatzuz.

En los supuestos de presentación fuera de plazo de autoliquidaciones de las que resulte una cantidad a devolver, el plazo para devolver se contará a partir de la presentación de la autoliquidación extemporánea.

Transcurrido el plazo de 6 meses, sin que se hubiera ordenado el pago de la devolución por causa imputable a la Administración tributaria, esta abonará el interés de demora sin necesidad de que el obligado lo solicite. A estos efectos, el interés de demora se devengará desde la finalización de dicho plazo hasta la fecha en que se ordene el pago de la devolución.

3. - Las devoluciones resultantes de los procedimientos iniciados por los medios del apartado 1.b) y 1.c) se resolverán en un plazo de 6 meses contados desde la presentación de la solicitud o desde la finalización del plazo previsto para la presentación de la comunicación de datos.

En estos supuestos, junto con la devolución, se abonará el interés de demora, devengado desde la fecha en que se hubiese realizado el ingreso indebido hasta la fecha en que se ordene el pago de la devolución.

Las dilaciones en el procedimiento por causa imputable al interesado no se tendrán en cuenta a efectos del cómputo del periodo de demora.

ARTÍCULO 18.- Procedimiento iniciado mediante declaración.

1. - Cuando la normativa del tributo así lo prevea, el obligado tributario deberá presentar una declaración en que manifieste la realización del hecho imponible y comunique los datos necesarios para que la Administración cuantifique la obligación tributaria mediante la práctica de una liquidación provisional.

2.- Udalak likidazioa 6 hilabeteko epean notifikatu beharko du, deklarazioa aurkezteko epea bukatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, edo, baldin deklarazioa epez kanpo aurkeztu badu, deklarazioa aurkeztutako egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta 6 hilabeteko epean.

3.- Likidazio tributarioa praktikatzean, administrazioak tributuzko obligaziodunak kontsignaturiko datuak baliatu ahalko ditu haren deklarazioan, edo bere esku daukan beste edozein, obligazioduna errekeritu ahalko du bere deklarazioan kontsignaturiko datuak argi ditzan edo horien justifikagarria aurkez dezan, eta balioak konprobatzeko aktuazioak egin ahalko ditu.

4.- Prozedura honetan agintzen diren likidazioetan, ez da berandutzako interesik erreklamatu deklarazioa aurkezten denetik hasi eta borondatezko periodoan pagatzeko epea bukatzen den arte.

19. Artikulua.- Datuak egiaztatzeko prozedura.

1.- Administrazio tributarioak datuak egiaztatzeko prozedura hurrengo kasu hauetan hasi ahalko du:

- a) Tributuzko obligaziodunaren deklarazioak edo autolikidazioak akats formalak edo errore aritmetikoak dituzten.
- b) Deklaraturiko datuak bat ez datozenean obligaziodun berak aurkezturiko beste deklarazio batzuetan ageri direnekin edo administrazio tributarioaren esku dauden datuekin.
- c) Araudia behar ez bezala aplikatu dela hautematen denean, modu nabarmen batean.
- d) Deklarazioari buruzko datuen bat argitzeko edo justifikatzeko eskatzen denean.

2. - El Ayuntamiento deberá notificar la liquidación en un plazo de 6 meses desde el día siguiente a la finalización del plazo para presentar la declaración, o en el supuesto de presentación de declaraciones extemporáneas, en el plazo de 6 meses desde el día siguiente a la presentación de la declaración.

3. - En la práctica de la liquidación tributaria, la Administración podrá utilizar los datos consignados por el obligado tributario en su declaración o cualquier otro que obre en su poder; podrá requerir al obligado para que aclare los datos consignados en su declaración o presente justificante de los mismos y podrá realizar actuaciones de comprobación de valores.

4. - En las liquidaciones que se dicten en este procedimiento no se exigirán intereses de demora desde la presentación de la declaración hasta la finalización del plazo para el pago en período voluntario.

ART

Artículo 19.- Procedimiento de verificación de datos.

1. - La Administración tributaria podrá iniciar el procedimiento de verificación de datos en los siguientes supuestos:

- a) Cuando la declaración o autoliquidación del obligado tributario adolezca de defectos formales o incurra en errores aritméticos.
- b) Cuando los datos declarados no coincidan con los contenidos en otras declaraciones presentadas por el mismo obligado, o con los que obren en poder de la Administración tributaria.
- c) Cuando se aprecie una aplicación indebida de la normativa que resulte patente.
- d) Cuando se requiera la aclaración o justificación de algún dato relativo a la declaración.

2.- Datuak egiaztatzeko prozedura abiatu ahalko da edo administrazioaren errekerimenduz, arren eta tributuzko obligaziodunak argi edo justifika dezan hautemandako ezadostasuna edota bere deklarazioari edo autolikidazioari buruzko datuak, edo likidazioko proposamenaren notifikazioz, administrazio tributarioak datu nahikoak dituenen hori formulatzeko.

3.- Tributuzko obligaziodunak adierazten duenean ez dagoela ados administrazioaren esku dauden datuekin, frogatu egin beharko du haien okertasuna.

4.- Behin-behineko likidazioa praktikatzeari ekin aurretik, administrazioak tributuzko obligaziodunari likidazioko proposamena jakinarazi beharko dio, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

Behin-behineko likidazioaren proposamenak betiere motibatua izan beharko du, hartan kontuan hartu diren egitateen eta zuzenbidezko fundamentuen erreferentzia labur batekin.

20. Artikulua.- Egiaztapen mugatua egiteko prozedura.

1.- Organo eskudunaren erabakiz, ofizioz abiarazi ahalko da obligazio tributarioaren egitate eta elementu determinagarrien egiaztapen mugatua egiteko prozedura, betiere beharrezkotzat jotzen denean.

2.- Prozedura horretan, udaleko administrazioak honako aktuzio hauek egin ahalko ditu:

- a) Tributuzko obligaziodunek beren deklarazioetan kontsignaturiko datuak eta aurkezturiko justifikagiriak edo horretarako errekeritzen zaizkienak aztertzea.
- b) Administrazioaren esku dauden datuak eta aurrekariak aztertzea.
- c) Arau tributarioek beharresten dituzten erregistroak eta gainerako dokumentuak aztertzea.

2. - El procedimiento de verificación de datos se podrá iniciar mediante requerimiento de la Administración para que el obligado tributario aclare o justifique la discrepancia observada o los datos relativos a su declaración o autoliquidación o mediante la notificación de la propuesta de liquidación cuando la Administración tributaria cuente con datos suficientes para formularla.

3. - Cuando el obligado tributario manifieste su disconformidad con los datos que obren en poder de la Administración, deberá probar su inexactitud.

4. - Con carácter previo a la práctica de la liquidación provisional, la Administración deberá comunicar al obligado tributario la propuesta de liquidación para que alegue lo que convenga a su derecho.

La propuesta de liquidación provisional deberá ser en todo caso motivada con una referencia sucinta a los hechos y fundamentos de derecho que hayan sido tenidos en cuenta en la misma.

ARTÍCULO 20.- Procedimiento de comprobación limitada.

1. - Por acuerdo de órgano competente, podrá iniciarse de oficio el procedimiento de comprobación limitada de los hechos y elementos determinantes de la obligación tributaria, cuando se considere necesario.

2. - En este procedimiento, la Administración municipal podrá realizar las siguientes actuaciones:

- a) Examen de los datos consignados por los obligados tributarios en sus declaraciones y de los justificantes presentados o que se requieran al efecto.
- b) Examen de los datos y antecedentes en poder de la Administración municipal.
- c) Examen de los registros y demás documentos exigidos por la normativa tributaria.

d) Hirugarren batzuei errekerimenduak egitea, oro har obligazioz hornitu beharra daukaten informazioa ekar dezaten edota hura berrets dezaten, dagozkien justifikagiriak aurkeztuz.

3.- Egiatzapen mugatua egiteko aktuazioak hasi izana tributuzko obligaziodunei notifikatu beharko zaie, haien izaera eta norainokoa adierazi beharko duen jakinarazpen baten bitartez.

Administrazioaren esku dauden datuak aski direnean likidazioko proposamena formulatzeko, proposamen horren notifikazioaren bitartez abiarazi ahalko da prozedura.

4.- Behin-behineko likidazioa praktikatzeari ekin aurretik, administrazio tributarioak likidazioko proposamena obligaziodun tributarioari jakinarazi beharko dio, bere eskubideen alde komenigarri deritzona alega dezan.

5.- Egiatzapen mugatuko prozedura batean ebazpena emandakoan, administrazio tributarioak ezingo du beste erregularizaziorik egin objektu egiaztatuari buruz, salbu eta egiaztapen mugatuko prozedura batean edo geroagoko inspeksio batean beste egitate edo zirkunstantzia batzuk deskubritzen badira, aipaturiko ebazpen horretan egindakoez eta zehaztutakoez bestelako aktuazio batzuetatik gertatzen direnak.

6.- Zor tributarioko egitate eta elementu determinanteak, obligaziodun tributarioak edo haren ordezkariak konformitate espresua eman dienei dagokienez, ezingo dira inpugnatu, salbu eta frogatzen bada egitatezko errakuntza batean inkurritu duela.

d) Requerimientos a terceros para que aporten la información que se encuentren obligados a suministrar con carácter general o para que la ratifiquen mediante la presentación de los correspondientes justificantes.

3. - El inicio de las actuaciones de comprobación limitada deberá notificarse a los obligados tributarios mediante comunicación que deberá expresar la naturaleza y alcance de las mismas.

Cuando los datos en poder de la Administración sean suficientes para formular la propuesta de liquidación, el procedimiento podrá iniciarse mediante la notificación de dicha propuesta.

4. - Con carácter previo a la práctica de la liquidación provisional, la Administración tributaria deberá comunicar al obligado tributario la propuesta de liquidación para que alegue lo que convenga a su derecho.

5. - Dictada resolución en un procedimiento de comprobación limitada, la Administración municipal no podrá efectuar una nueva regularización en relación con el objeto comprobado salvo que en un procedimiento de comprobación limitada o inspección posterior se descubran nuevos hechos o circunstancias que resulten de actuaciones distintas de las realizadas y especificadas en dicha resolución.

6. - Los hechos y los elementos determinantes de la deuda tributaria respecto de los que el obligado tributario o su representante haya prestado conformidad expresa no podrán ser impugnados, salvo que pruebe que incurrió en error de hecho.

III. TITULUA. - KUDEAKETA LOKALARI BURUZKO
ARAUAK

1. ATALA.- KREDITU TRIBUTARIOENA.

1. KAPITULUA.- Aldizkako Epemugarena

21. Artikulua.- Ondasun Inmobiliarioen gaineko Zerga.

1.- Gipuzkoako Diputazio Foralak osatutako errolda katastralean oinarrituz elaboratuko da Ondasun Inmobiliarioan gaineko Zergaren errolda fiskala, zeini inkorporatuko baitzaizkio Katastroak onetsitako alterazio fisiko, ekonomiko eta juridikoak nahiz Udalak ezagutzen dituen gertaera edo egintzen ondorio direnak, betiere GDFarekin hitzarturiko terminoetan.

Udalak GDFari jakinaraziko dizkio katastroan alta, baja edo modifikazioen bat genera dezaketen gertakariak, egintzak edo nagozioak, baldin eta Udalak dagokion lizentzia edo baimena emana duten aktuazioen ondorio badira.

2.- Ondasun zergapetuetan egiten diren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoek hurrengo urteko lehenengo egunetik izango dute efektibitatea, eta periodo horri dagokion erroldan inkorporatu ahalko dira aldaketa horiek, baldin eta zerga-oinarriaren modifikaziorik gertatu ez bada horiengatik.

3.- Ondasun inmobiliario baten gaineko eraikuntzen berri jakiten denean eta balio katastral berria haiek burutu zireneko ekitaldiaz geroztiko batean jakinarazten denean, obrak bukatu eta hurrengo urte naturalean izango du efektibitatea balio horrek.

Ondorioz, eraikuntza bukatu deneko ekitaldiaren hurrengoegi dagokien O.I.Z. likidatuko du Udalak, zoruari eta eraikuntzari esleitutako balio katastrala oinarritzat hartuta.

TÍTULO III. - NORMAS SOBRE GESTIÓN LOCAL

SECCIÓN 1ª - DE CRÉDITOS TRIBUTARIOS

CAPÍTULO I.- De Vencimiento Periódico

Artículo 21.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

1.- El Padrón fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles se elaborará sobre la base del padrón catastral formado por la Diputación foral de Gipuzkoa al que se incorporarán las alteraciones de orden físico, económico y jurídico aprobadas por el Catastro y aquellas que sean consecuencia de hechos o actos conocidos por el Ayuntamiento y en los términos convenidos con la DFG.

El Ayuntamiento comunicará a la DFG los hechos, actos o negocios susceptibles de generar un alta, baja o modificación catastral, derivados de actuaciones para las que se haya otorgado la correspondiente licencia o autorización municipal.

2.- Las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en los bienes gravados tendrán efectividad desde el día primero del año siguiente, pudiendo incorporarse en el padrón correspondiente a este período dichas variaciones si de las mismas no ha derivado modificación de la base imponible.

3.- Cuando se conozca de la realización de construcciones sobre un bien inmueble y se notifique el nuevo valor catastral en un ejercicio posterior al de su conclusión, dicho valor tendrá efectividad desde el inicio del año natural inmediatamente siguiente al del fin de las obras.

En consecuencia el Ayuntamiento liquidará el I.B.I. correspondiente a los ejercicios siguientes al de finalización de la construcción, sobre la base del valor catastral asignado a suelo y construcción.

4.- Likidazioak hartuko duen periodoa obrak bukatzen direneko urtearen hurrengoan hasiko da eta likidazioa praktikatzeko deneko ekitaldian amaituko da, betiere periodo horrek preskripzioko epea gainditzen ez badu. Baldin periodo horrek preskripzioko epea gainditzen badu, preskribitu gabeko urteei dagokien OIZ bakarrik likidatuko da.

5.- Likidazioko oinarria determinatzeko, legezko beherapenak aplikatuko dira, eta horien zenbatekoa legez ezarritako terminoetan finkatuko eta jakinaraziko da.

6.- Ondasunen alterazioek zergaren likidazioan eragina dutenean, zergapeko subjektuak obligatuak daude altaren, bajaren edo bariozioaren deklarazioak aurkeztera.

7.- Erroldan jarri beharreko tributu-kuotak determinatze aldera, Udalak onetsitako zerga-tasak ezarriko dira, bai eta, hala behar izanez gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arau Foralak onetsitako balio katastralak eguneratzeko koefizientea ere. Aldaketa horiek bakoitzari jakinaraztea ez da beharrezkoa izango, horiek erregelamenduz tramitatutako Ordenantza Fiskaletik eta oro har eta obligazioz aplikatzekoa den Arau Foral batetik baitatzen.

8.- Balorazio kolektiboko prozeduretan, ez da beharrezkoa izango likidazio tributarioak banan-banan notifikatzea baldin aldez aurretik balio katastralaren eta likidazio-oinarriaren notifikazioak praktikatu badira.

22. Artikulua.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

1.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda fiskala haien zirkulatzeko baimenetan helbidetzat Lasarte-Oriako udalerrira ageri den ibilgailuek osatuko dute.

4.- La liquidación comprenderá un período que se iniciará en el año siguiente al de conclusión de las obras y acabará en el ejercicio en que se practica la liquidación, siempre que dicho período no sea superior al plazo de prescripción. Si tal periodo excede del plazo de prescripción, solo se liquidará el IBI correspondiente a los años no prescritos.

5.- La base liquidable se determinará aplicando las reducciones legales, cuya cuantía será fijada y comunicada en los términos previstos legalmente.

6.- Los sujetos pasivos están obligados a presentar declaraciones de alta, baja o variación cuando las alteraciones de los bienes tengan trascendencia para la liquidación del impuesto.

7.- A efectos de determinar las cuotas tributarias que deben figurar en el padrón, se aplicarán los tipos impositivos aprobados por el Ayuntamiento y, en su caso, el coeficiente de actualización de valores catastrales aprobado por la Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa. No será preciso proceder a la notificación individualizada de tales modificaciones puesto que las mismas proceden de la Ordenanza Fiscal reglamentariamente tramitada y de una Norma Foral de general y obligatoria aplicación.

8.- En los procedimientos de valoración colectiva, no será necesaria la notificación individual de las liquidaciones tributarias cuando se hayan practicado previamente las notificaciones del valor catastral y la base liquidable.

ARTÍCULO 22.- Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

1. - El padrón fiscal del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica comprenderá los vehículos en cuyos permisos de circulación figure como domicilio el municipio de Lasarte-Oria.

Aurreko urteko erroldan oinarrituz egingo da, aurreko ekitaldian izandako eta Udalak ezagutzen dituen altak eta beste modifikazio batzuen efektuak inkorporatuta (transferentziak, bizilekuen aldaketak eta bajak).

2.- Tarifa horiek edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuen Arau Foralaren bidez onetsitako tarifak edo tarifen taula aldatzeagatik gertatutako modifikazioak bakoitzari jakinaraztea ez da beharrezkoa izango, horiek erregelamenduz tramitaturiko Ordenantza Fiskaletik eta oro har eta obligazioz aplikatzekoa den Arau Foral batetik baitatuz.

23. Artikulua.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

1.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren errolda fiskala Administrazio Foralak osatutako zergapekoen matrikulan oinarrituz egingo da. Legezko salbuespenak aplikatzekoak ez zaizkielako zerga pagatzera obligatuak diren subjektu pasiboek osatuko dute, eta Udalak ezagutzen dituen gertakarien edo egintzen ondoriozko alterazioak inkorporatuko dira, Ogasun Foralarekin hitzartutako terminoetan.

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arau Foralak onetsitako zerga-tarifen bariazioagatik edo koefizienteak modifikatzeagatik tributu-kuotan gertatutako bariazioak bakoitzari jakinaraztea ez da beharrezkoa izango, horiek erregelamenduz tramitatutako Ordenantza Fiskaletik eta orokorki eta obligazioz aplikatzekoa den Arau Foral batetik baitatuz.

24. Artikulua.- Tasak.

1.- Erroldak aurreko ekitaldiko erroldan oinarrituz egingo dira. Horretarako, dagokien Ordenantza Fiskalean onetsitako tarifen bariazioaren ondoriozko modifikazioak inkorporatuko dira, bai eta zorraren funtsezko elementu erabakigarrien alteraziorik ez dakarten eta Udalak ezagutzen dituen beste intzidentziak ere.

Se formará sobre la base del padrón del año anterior, incorporando las altas y los efectos de otras modificaciones (transferencias, cambios de domicilio y bajas) sucedidas en el ejercicio inmediatamente anterior, y de las que el Ayuntamiento tenga conocimiento.

2. - No será preciso proceder a la notificación individualizada de las modificaciones originadas por variación de las tarifas, o del cuadro de tarifas aprobadas por Norma Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ya que las mismas proceden de la Ordenanza Fiscal reglamentariamente tramitada y de una Norma Foral de general y obligatoria aplicación.

ARTÍCULO 23.- Impuesto sobre Actividades Económicas.

1.- El padrón fiscal del Impuesto sobre Actividades Económicas se elaborará sobre la base de la matrícula de contribuyentes formada por la Administración Foral, comprensiva de los sujetos pasivos obligados al pago del impuesto por no resultarles de aplicación las exenciones legales, incorporando las alteraciones consecuencia de hechos o actos conocidos por el Ayuntamiento y en los términos convenidos con la Hacienda Foral.

2.- Las variaciones en la cuota tributaria originadas por modificación de los coeficientes o por variación de las tarifas del impuesto aprobadas por Norma Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, no precisarán de notificación individualizada, ya que las mismas proceden de la Ordenanza Fiscal reglamentariamente tramitada y de una Norma Foral de general y obligatoria aplicación.

ARTÍCULO 24.- Tasas.

1.- Los padrones se elaborarán sobre la base del padrón del ejercicio anterior, incorporando las modificaciones derivadas de la variación de tarifas aprobadas en la Ordenanza fiscal correspondiente, así como otras incidencias que no constituyan alteración de los elementos esenciales determinantes de la deuda y que fueran conocidas por el Ayuntamiento.



2.- Ordenantza Fiskalean jasotako tarifak aldatzeagatik tributu-kuotan gertaturiko bariazioak ez dira bakoitzari jakinarazi beharrekoak, Ordenantza horrek erregelamenduzko tramitazioa izan baitu eta jendaurrean ikusgai jarria egon baita.

3.- Baldin udalaren eskumeneko jarduerak egiteagatik eskakizun diren eta hirugarren batzuei interesatzen zaizkien edo onura dakarkieten zenbait kontraprestaziok lehenago prezio publikoen izaera izan badute eta legearen aginduz tasa gisa kontsideratu behar badira, ez da beharrezkoa izango bakoitzari jakinaraztea, betiere kondizio hauek batera gertatzen badira:

- Tasaren subjektu pasiboa bat dator prezioa pagatzera obligatuarekin
- Tasaren kontzeptuan pagatu beharreko kuota bat dator prezio publikoagatik eskatu zenarekin, ordenantza fiskalean onetsitako eguneratzeko koefizientearena gehitu eta gero, hala badagokio.

25. Artikulua.- Erroldak onestea.

1.- Erroldak Informatikako Departamentuak egingo ditu. Hala ere, Errenta eta Exakzioen Departamentuari dagokio horiek egiaztatzea, eta Funtsen Kontu-hartzailetzari horiek fiskalizatzea eta erregistratzea.

2.- Erroldak onesteko eskumena Alkateari dagokio.

3.- Aurreko apartatuan aipatutako erabakia hartu ondoren egingo da eskubideak aitortzearen kontabilizazioa.

4.- Baldin mugaegun periodikoak dituzten zenbait tributu kobratzeko periodoak bat badatoz, exijitu ahalko da dagozkien kuotak errezibo bakar baten bidez pagatzea, zeinetan behar bezala bereizita agertuko baitira sarrerako kontzeptuak.

2.- Las variaciones en la cuota tributaria originadas por modificación de las tarifas contenidas en la Ordenanza Fiscal no precisan de notificación individualizada, en cuanto dicha Ordenanza ha sido expuesta al público y tramitada reglamentariamente.

3.- Cuando determinadas contraprestaciones exigibles por la realización de actividades de competencia municipal que interesen o beneficien a terceros, hubieren tenido la naturaleza de precios públicos y por mandato legal hayan de considerarse tasas, no será preciso notificar individualmente la cuota tributaria, siempre que concurren estas condiciones:

- El sujeto pasivo de la tasa coincide con el obligado al pago del precio
- La cuota a pagar en concepto de tasa coincide con la que se exigió por precio público incrementada, en su caso, por el coeficiente de actualización general aprobado en la Ordenanza fiscal.

ART

Artículo 25.- Aprobación de padrones.

1.- Los padrones se elaborarán por el Departamento de Informática, correspondiendo al Departamento de Rentas y Exacciones la verificación de los mismos y a Intervención de Fondos su fiscalización y toma de razón.

2.- La aprobación de los padrones es competencia del Alcalde.

3.- La contabilización del reconocimiento de derechos tendrá lugar una vez haya recaído el acuerdo referido en el apartado anterior.

4.- Cuando los períodos de cobro de diversos tributos de vencimiento periódico sean coincidentes, se podrá exigir el pago de las cuotas respectivas mediante un recibo único, en el que constarán debidamente separados los conceptos de ingreso.



Hainbat tributu multzo batean biltzen badira, interesatua ez da obligatua egongo erreziboaren zenbateko totala une berean pagatzera. Udalaren Kobrantzako Bulegoan pagamendu partziala onartuko da baldin kontzeptu batengatik edo batzuenatik likidatutako kuota kitatzen badu.

En caso de agrupación de tributos, el interesado no estará obligado a pagar la totalidad del recibo en el mismo momento. En la oficina municipal de Recaudación se aceptará el pago parcial cuando cubra la cuota liquidada por uno o varios conceptos.

26. Artikulua.- Egutegi Fiskala.

1. - Izaera orokorrez, aldizkako izaerako zergak ordaintzeko aldiak honako hauek izango direla ezartzen da:

ARTÍCULO 26.- Calendario Fiscal.

1. - Con carácter general, se establece que los períodos para pagar los tributos de carácter periódico serán los siguientes:

TRIBUTUA / TRIBUTO	ORDAINTZEKO EPEA / PLAZO PAGO
<u>Urteko aldizkakotasunen zergak / Tributos de periodicidad anual</u>	
> IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA <i>IMPUESTO SOBRE VEHICULOS</i>	* Martxoaren 1(e)tik apirilaren 15(e)ra <i>Del 1 de Marzo al 15 de abril</i>
> ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA <i>IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES</i>	* Maiatzaren 15(e)tik ekainaren 30(e)ra <i>Del 15 de mayo al 30 de junio</i>
> EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA <i>IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS</i>	* Urriaren 1(e)tik azaroaren 10(e)ra <i>Del 1 de octubre al 10 de noviembre</i>
> ZABORREN TASA <i>TASA DE BASURAS</i>	* Apirilaren 1(e)tik maiatzaren 15(e)ra <i>Del 1 de abril al 15 de mayo</i>
> IBIEN TASA <i>TASA DE VADOS</i>	* Urriaren 1(e)tik azaroaren 15(e)ra <i>Del 1 de octubre al 15 de noviembre</i>
> OROKORRA <i>GENERAL</i>	* Urriaren 1(e)tik azaroaren 15(e)ra <i>Del 1 de octubre al 15 de noviembre</i>
<u>Lauhilabeteko aldizkakotasunaren tasa / Tasa de periodicidad cuatrimestral</u>	
> URA ETA ESTOLDERIA / AGUA Y 3. Lauhilabetealdia <i>3º Cuatrimestre</i>	* Otsailaren 1(e)tik martxoaren 15(e)ra <i>Del 1 de febrero al 15 de marzo</i>
1. Lauhilabetealdia <i>1º Cuatrimestre</i>	* Ekainaren 1(e)tik uztailaren 15(e)ra <i>Del 1 de junio al 15 de julio</i>
2. Lauhilabetealdia <i>2º Cuatrimestre</i>	* Urriaren 1(e)tik azaroaren 15(e)ra <i>Del 1 de octubre al 15 de noviembre</i>
<u>Hiruhilabeteko aldizkakotasunaren tasa / Tasa de periodicidad Trimestral</u>	
> AZOKA IBILTARIA / MERCADO AMBULANTE 1. Hiruhilabetealdia <i>1º trimestre</i>	* Urtarrilaren 1(e)tik 25(e)ra <i>Del 1 al 25 de enero</i>
2. Hiruhilabetealdia <i>2º trimestre</i>	* Apirilaren 1(e)tik 25(e)ra <i>Del 1 al 25 de abril</i>
3. Hiruhilabetealdia <i>3º trimestre</i>	* Uztailaren 1(e)tik 25(e)ra <i>Del 1 al 25 de julio</i>
4. Hiruhilabetealdia <i>4º trimestre</i>	* Urriaren 1(e)tik 25(e)ra <i>Del 1 al 25 de octubre</i>



OROKORRA / GENERAL

1. Hiruhilabetealdia

1º trimestre

* Urtarrilaren 1(e)tik 25(e)ra

Del 1 al 25 de enero

2. Hiruhilabetealdia

2º trimestre

* Martxoaren 1(e)tik 25(e)ra

Del 1 al 25 de marzo

3. Hiruhilabetealdia

3º trimestre

* Ekainaren 1(e)tik 25(e)ra

Del 1 al 25 de junio

4. Hiruhilabetealdia

4º trimestre

* Irailaren 1(e)tik 25(e)ra

Del 1 al 25 de setiembre

Hilabeteko aldizkakotasunaren tasak / Tasas de periodicidad mensual

> DANTZA ETA BALLETA

DANZA Y BALLET

* Likidatutako hil bakoitzaren aurreko hilaren

15(e)tik 25(e)ra

> OROKORRA

GENERAL

Del 15 al 25 del mes inmediato anterior a cada

mes liquidado

> ZAHARREN EGOITZA

RESIDENCIA DE ANCIANOS

* Likidatutako bakoitzaren ondorengo hilaren

15(e)tik hilabete

> ETXE-LAGUNTZA

ASISTENCIA DOMICILIARIA

Un mes desde el 15 del mes inmediato posterior

> MUSIKA ESKOLA

ESCUELA DE MUSICA

> EUSKALTEGIA

EUSKALTEGI

* Dagokion hilabeteko 25(e)tik 30(e)ra.

Del 25 al 30 del mes en curso.

> INGURUNEAN MANTENTZEA

MANTENIMIENTO DEL ENTORNO

2.- Aurreko puntuan adierazitako pagatzeko periodoetan gertatzen diren bariazioak Alkatezkan onetsiko ditu, eta horiek luzatzea ez da onartuko, non eta salbuespenezko zirkunstantziak suertatzen ez diren, betiere epe horrek arestian adieraziriko egun-kopuruaren gutxitzerik ez badakar.

3.- Periodoak seinalatutako egunean amaituko dira, edo, hura larunbata edo baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean.

4.- Egutegi fiskala Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko ediktuen taulan iragarriko da.

Era beran, udalaren web gunean, tributu bakoitza pagatzeko epeen berri emango da.

5.- Mugaegun periodikoa duen tributu bat kobratzeko epea aldatzen bada, ez da beharrezkoa izango subjektu pasiboek banan-banan jakinaraztea zirkunstantzia hori.

2.- Las variaciones en los períodos de pago reseñados en el punto anterior serán aprobadas por la Alcaldía, no admitiéndose la prórroga de los mismos salvo que concurren circunstancias excepcionales, y siempre que dicho plazo no suponga una reducción en el número de días anteriormente señalados.

3.- Los periodos finalizarán el día señalado, o siendo éste sábado o inhábil, el inmediato hábil posterior.

4.- El calendario fiscal se publicará en el Boletín Oficial de la Provincia y en el tablón de edictos del Ayuntamiento.

Asimismo, en la página web municipal se informará de los plazos de pago para cada tributo.

5.- Cuando se modifique el período de cobro de un tributo de vencimiento periódico, no será preciso notificar individualmente a los sujetos pasivos tal circunstancia.

27. Artikulua.- Errolden erakustaldi publikoa.

1.- Pagatu beharreko kuotak eta horiek determinatzeko elementu tributarioak jasotzen dituzten errolda fiskalak 15 egunez jendaurrean jarriko dira udalaren bulegoetan, horiek kobratzeko aldia hasi baino 15 egun lehenago eta 15 egunez.

Errolden erakustaldi publikoa medio telematikoen bitartez egin ahalko da.

2.- Artikulu honek araututako erakustaldi publikoan zehar, herritarrek, oro har, kontsultatu ahalko dituzte erroldako datuak.

Bestelako datetan, kontsulta baimenduko bada, beharrezkoa izango da haren interes legitimoa akreditatzea.

3.- Zor tributarioen eta beste elementu tributario batzuen bariazioak, baldin legean eta tributuak erregelatzeko ordenantza fiskaletan sartutako modifikazioak aplikatzearen ondorio badira, edo subjektu pasiboak aurkeztu behar dituen bariazioen erregelamenduzko deklarazioen emaitza badira, kolektiboki notifikatuko dira, Tributuen Arau Foral Orokorren 98.3 artikulua ezartzen duenaren babesean.

4.- Erroldak eta horietan integratutako likidazioak jendaurrean ikusgai jartzearen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, kontentzioso-administratiboaren aurretik, erroldaren erakustaldi publikoko epea bukatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

28. Artikulua.- Kobrantzako iragarpenak.

1.- Aurreko artikuluan araututako egutegi fiskalaren iragarpenak, errolden erakustaldi publikoa ezagutzera emateko funtzioaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kobrantzako Erregelamendu Orokorren 18. artikulua aipatzen duen kobrantzako iragarpena publikatzeko funtzioa bete ahalko du.

2.- Xede hori betetzeko, ondoko puntu hauek ere adierazi beharko dira:

- a) Sarrera egiteko epea.
- b) Pagatzeko medioak: erabilera legaleko dirua edo Udalaren aldeko txeke izenduna.

ART

Artículo 27.- Exposición pública de padrones.

